

JUAN GOIKOETXEA LARBURU -SAGARDOGILEA-

“Nahiago det txotx denboraldi motzaxeagoa egin eta kalitatezko sagardoa izan”

■ Juan Goikoetxearen ustetan itxura ona dakarki aurtengo sagardoak; baina, nolakoa aterako den ez dago jakiterik ■ Sagardo onak edan erreza behar duela dio, edan ahala gehiago eskatzen duen horietakoa ■ Kalitate bajukoa den sagardo asko omen dabil zenbait lekutan.

TXOTX denboraldia hasteko zorian da, eta sagardotegietan ere ari dira denboraldirako preparatiboak egiten. Sagardo munduaren ingurukoak jakin asmotan, Altzuetara jo du Kronikak; Juan Goikoetxeak xuxen asko azaldu dizkigu.

■ **KRONIKA: Zer moduzko sagardoa dator aurten?**

J. GOIKOETXEA: Oraindik ikusteko dago, baina, itxura ona dakarki. Aurtengo hotzekin atzeraxio etorri liteke, baina, hori beti ez da kalterako, sagardoa asentatu egiten baita.

■ **Sagardo onak zer behar du?**

Kolorea, usaia eta gustua behar ditu, noski. Sagardo ona zein den jakiteko ez dago ententia izan beharrik. Norberari gustatzen zaion hori da ona.

Nere iritziz sagardo edan erreza da ona, edan ahala gehiago eskatzen duena. Batzueri sagardo fuertagoa gustatzen zaie, baina, segituan nekatzen dira edaten.

■ **Sagardo eginean sagardogile bakoitzak izango du bere eskola?**

Gauza segururik ez da hemen eta iritzira aritzen gera: sagarra zein zonatatik ekarri, zenbat,... esperientziak erakusten du. Gainera, sagar berarekin bi urte desberdinetan, sagardo desberdina aterako litzateke.

■ **Iaz kanpoko sagarra zen ia gehiena, baina, aurten bertan asko izan da. Nola eragiten du honek sagardoan?**

Egia da aurten sagarra ez degula hain urrutitik ekarri. Bertakoa, Asturiakoa, Galiziakoa... Baina, hor ere ez dago dena argi. Lehen, adibidez,



Juan Goikoetxea 'Altzuetan' sagardoak zein puntutan dauden probatzen.

Frantziatik ekartzen genuen sagarra, beste inon ez zegoenean; baina orain, inguruan izanda ere handik pixkat ekartzen du zenbaitek, nahasteko ona delako. Gauza, neurria hartzea da.

■ **Hainbesteko gantxoak izateko zer du sagardotegiak?**

Koadrila giroan sortzen den ambientea, seguru asko. Txotxa sagardoaren lorea da eta hori gozatzeko aukera orain izaten da. Hemen hotz egiten du, baina, ez da nabaritzen.

■ **Sagardo onak probatzera zer etorri behar da, astez?**

Nik uste det jendeak gaizki ulertua daukala hori. Askok uste du sagardotegira etorri eta dena irikia behar duela. Hemen

kupel batzuk daude irekiak eta hortik aurrerakoa klienteari ematen zaiona da. Sagardoa reserbatu egin behar da ona enboteilatze ezker.

Egia da asteburuetan jende gehiago izaten dela, baina, guk bere tankera batean bete arte bakarrik hartzen degu. Autobuskadak hartzea ez zait gustatzen.

■ **Zu sagardotegiko semea zara, bertan jaioa. Zer aldatu da garai bateko sagardotegietatik gaurkoetara?**

Dana kanbiatu da. Lehen leku askotan ziren sagardotegiak eta jendea ere asko mogitzen zen. Jendea beste patxada batekin bizi zen. Ez zen orain bezela izaten: enboteilatu ez

zen ia sagardorik egiten, eta kupel bat bukatu artean besterik ireki ere ez. Jendeak mahaian eseri eta txarrotik edaten zuen sagardoa.

■ **Gero eta sagardotegi gehiago dago hemen, baina, sagastirik ez da jartzen. Honek luzera ez al du arazorik ekarriko?**

Hori tristea da. Ni neroni sagar landareak jartzen ari naiz; etxean zer behar dan huraxe jarri. Baina, horrek lana eskatzen du eta komodoena sagarra merke ekarri eta sagardo asko egitea da zenbaitentzat. □

ESANDA BEZALA

■ “Egiten den sagardotik parte txiki bat edaten da txotxean. Gehiena enboteilatu egiten dugu”.

■ “Gustatzen zait sagardotegia zer den dakien jendea hartzea. Jendeak disfrutatu dezala eta guk ere bai”.

■ “Orain lehen baina sagardo gehiago edaten da”.

■ “Lehen ez nuen asko usteko, baina, orain ez lidake inportikan kupel danak inoxidablezkoak balira ere. Beste seguridade bat ematen du, eta kalidadean ez dago alderik”.

■ “Zenbait taberna eta jatetxetan ez dute sagardoaren kalitatea kontuan hartzen; prezioari bakarrik begiratzten diote. Jendeak sagardoa eskatu, edaterik ez, eta ardoa edaten bukatzen du askotan”.

■ “Garai batean bandoa jotzen zuten sagardotegi batean kupel berria irekitzera zijoazenean”.

■ “Sanidadekoak ez dakit berak ere badakiten zer nahi duten. Kontrola ondo dago, baina, eskatzen dizkiguten gauza batzuk itxurik ere ez dute”.

SAGARDOTEGIEN IREKIERA

■ **ALTZUETA:** Otsailaren aurrenean

■ **LARRE GAIN:** Hilaren 18an.

■ **EIZMENDI:** Hilaren 18an.

■ **ZELAIA:** Hilaren 24ean.

■ **RUFINO:** Hilaren 28an

■ **ITXASBURU:** Hilaren 18an.

■ **AKARREGI:** Hilaren 19an.

■ **OTSUA-ENEA:** Hilaren 18an.

■ **IPARRAGIRRE:** Erabakitze.

■ **ALBERRO:** Otsailaren lean.

■ **GOIKO LASTOLA:** Hilaren 18an.

■ **ELORRABI:**

SANTA BARBARA
PEUGEOT



PEUGEOT
Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979
Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoaz aldatzen ditugu

Peugeot 306	XSD	10.066,95 euro
Peugeot 106 - 5 ate	Diesela	4.056,83 euro
Peugeot 205 - 5 ate	1.4	3.485,87 euro
Ford Scort - 5 ate	16 balbula-gorria	3.305,57 euro
Citroen AX - 5 ate	Diesela	2.343,95 euro
Seat Ibiza - 3 ate	Diesela	2.253,80 euro
VW Polo G.T.	1.3	1.803,04 euro
Seat Malaga 4p.	1.5	1.682,83 euro
Ford Escort	Diesela	1.652,78 euro
Peugeot 309	1.6	1.141,92 euro
Peugeot 205 5p.	Gasolina	1.021,72 euro

Urdin



Osagarri, opari edo lurrinen bila bazabiltza, Montebideo kalean aurkituko duzu orain behar duzuna:

Poltsak, lepokoak, pitxiak, lurrinak eta abar.

URDIN Osagarri Denda
Montebideo kalea 1
(EPO eta atletismo pista artean)
- HERNANI -

Skoda Octavia. Bizi guztia



OCTAVIA eskura 1.950.000 ptatik.
aurrera* (11.719,74 euro*)

*Penintsula eta Balearetako gomendatutako prezioa Skoda Octavia 1.4 16V Classic Garraio eta zergak barne. 1 euro=166,386 pta.

MENABI

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943 40 42 43

Chillida-Lekun 3.000 eurotik gora bildu ziren atzo, problemak dituzten ume eta gaztetxoek alde

■ Musika, antzerkia, Perurenatarrak harri jasotzen eta abar izan ziren ■ Bildutako dirua ANAR fundazioarentzako izango da.



Umeek banan bana kontatu zituzten Perurenaren 15 jasoaldiak. Atzean zutik, Chillida familia.

CHILLIDA familiak arazoak dituzten ume eta gaztetxoek aldeko festa antolatzen zuten atzo Zabalagako museoan. Anto-latzaileek Kronikari eguerdiko 13:30etan emandako datuen arabera, ordurako 500 lagun joanak ziren. Gehienak gurasoak beren umeekin.

Bildutako dirua ANAR fundazioarentzat da, Elkarte Autonomoan laguntza-telefonoaren egoitza jartzeko. Te-

lefono horrek hiru probintzietan 7.000 dei jaso zituen 2.000 garren urtean. Babesik gabe dauden ume eta gaztetxoak, tratatu txarrak jasotzen dituztenak, akosoak izan dituztenak ... ume eta gaztetxo horiei denei lagundu nahi die ANAR-en laguntza telefonoak.

IKUSKIZUN ASKO

Museo osoa zabalik egoteaz gain, zenbait ekitaldik jantzi

zuten eguartera Zabalagan. Chillida familiaren sarrera motz baten ondoren hasi zen ikuskizuna: antzerkia eta malabar eta guzti, musika eta kantuak, eta Perurena aita-semeak harri jasotzen izan ziren Hernaniko museoan.

Ikuskizunak museoko leku ezberdinetan izan ziren eta tartean, erregetako tarta eta txokolatea ere bai, etxearen kontura. □

'UTZI HERNANI PAKEAN' - PELOTA TXAPELKETA

Valero-Imaz eta Legarreta-Zubillaga, finala

■ Valero-Imazek 22-11 irabazi zieten Aitor-Aitzoli; Legarreta-Zubillagak 22-14 Otaño-Lizartzari ■ Antolatzaileak gustora sortu den giro eta mugimenduarekin.

UTZI *Hernani Pakean*-ek antolatutako pala txapelketa joan zen asteburuan hasi zen. Bukatu ere hala bukatu behar zuen, baina frontoiko argiarekin izandako arazoak medio, atzora arte atzeratu behar izan ziren finalerdietako partiduak.

BI FINALERDIAK ATZO

Goiz hasi ziren atzo pelotan. Bederatzietarako Valero-Imaz eta Aitor-Aitzol, lehenengo finalerdia jokatzen hasi ziren. Valero-Imaz bikotea 22-11 nagusitu zitzaion Aitor-Aitzol bikote *inatzuarrari*. Lehenengo bukatu orduko, Legarreta-Zubillaga eta Otaño-Lizartzak ekin zioten bigarren finalerdia, eta lehenek irabazi zuten 22-14. Beraz finala Valero-Imaz eta Legarreta-Zubillagak jokatuko dute, oraindik erabakitzeke dagon egunean.



Zortzi semifinalistak atzo partiduak hasi aurretik.

28 BIKOTE GUZTIRA

Antolatzaileak gustora agertu dira, izandako partehartze altuagatik. Eta Hernani eta Astigarragako Udalak eskertu dituzte frontoien erabilpenean emandako erreztasunengatik. □



Musika instrumentu tradizionalen erakusketa

■ Daniel Peral artisauek eta musikari hernaniarrak jarriko du ■ Biterin, ostiraletik aurrera.



Daniel Peral, berak egindako arrabita (rabel) jotzen.

DANIEL Peral hernaniarrak musika instrumentu tradizionalen erakusketa jarriko du Biterin, datorren ostiraletik aurrera. Daniel Peral artisauek da eta musika tradizionala ikasia. Instrumentu musikalak egin eta jotzen ditu. Daniel denbora askoan egon da espoziorik egin gabe, baina, egiten hastea erabaki zuenetik, Ordizian, Reinosan, Eibarren eta beste zenbait lekuetan egin izan ditu.

Albokak, arrabita (rabel), kriskitinak, siflak, terrañuelak,

kutxareak, sistroak eta beste hainbat instrumentu jarriko ditu Daniel Peralek Biterin.

REINOSATIK ORBEGOZORA

Daniel Peral Reinosan jaioa da eta, Kronikari esan dioenez, *Orbegozo* forjak ekarri zuen Hernanira. 1963an egin zuen lehenengo arrabita; geroztik artisautea eta musika izan dira bere afizioak. Daniel jubilatua dago eta Larramendi kaleko baju batean aritzen da musika instrumentuak egiten. □

Barrikotea Peña Otaño

■ Peña Otaño elkarteak barrikotea egingo du urtarrilaren 11an, datorren ostiraletan. Aurtengo aurrenekoa da, baina, denboraldiko hirugarrena. Afaritarak joan nahi duenak hilaren 9a baino lehenago eman behar du izena, asteazkenearako. Afaria arratsaldeko 20:30etan da.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶Taxiak: 943 550093
- ▶Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶DYA: 943 464622
- ▶Autobusak: 943 556662
- ▶Anbulatorioa: 943 557750
- ▶Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶Eguez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793
- ▶Gauz: Correa
Antziola 44
☎ 943 551933

Hernani Institutua

A. Iturriaga - K. Labaka

LANGILEEN FORMAKUNTZARAKO IKASTAROAK
%100 ean HOBETUZek SUBENTZIONATUAK
Gaitasun profesionalen sistema 2002ko URTARRILA-EKAINA

Ikastaroak	Orduak	Hasiere	Amaiera
MEKANIKA ALORRA			
Kalitate Kontrola	40	01/12/10	- 02/01/14
Bistak eta krokizazioa	40	02/01/14	- 02/02/06
Cad-Autocad	45	02/01/14	- 02/02/07
Neumatika	40	02/01/16	- 02/02/07
Bistak eta krokizazioa	40	02/02/18	- 02/03/12
Cad-Autocad	45	02/02/18	- 02/03/13
Kalitate Kontrola	40	02/02/18	- 02/03/11
CNC fresadoran programaketa eta eragiketa	55	02/04/08	- 02/04/29
Elektroneumatika	30	02/04/08	- 02/04/24
Cad-Autocad	45	02/04/08	- 02/05/02
Errepresentazio grafik. fabrikaz. mekanikoan	60	02/04/08	- 02/05/14
Makina osagarriak	60	02/04/08	- 02/05/13
Cad-Autocad	45	02/05/06	- 02/05/29
ELEKTRIZITATE-ELEKTRONIKA ALORRA			
CAD- Elektrikoa	40	02/01/14	- 02/02/05
Automatismo programagarriak	60	02/01/07	- 02/02/07
Inst. domotikoen disein. eta egitura Sist. Zentr.	50	02/02/25	- 02/03/18
Antenen instalaz. montaiak eta mantenim	30	02/03/04	- 02/03/20
Instalatzaila karneta ateratzeko prestakuntza	60	02/04/08	- 02/05/13
Automatismo elektromekanikoak	40	02/04/15	- 02/05/07
Instal. Domotikoen Diseinu eta konfig. BW EIB	65	02/04/15	- 02/05/23

Ikastaro guztiak Asteleheneetik Ostegunera emango dira 17:30etatik 20:30etara.

* Interesatuak eskaera inpresioak aurkeztu beharko dituzte. Zentruan jaso daitezke. Izen emateko epea ikastaroa hasi baino 4 egun lehenago itxiko da kasu guztietan.

* Informazioa gehiago: Karmelo Labaka 7 zentroan - Tel. 943 551958 - Fax. 943 330



e-maila: hernani@hernanibhi.hezit

